

## *Etxean kontu kantari*

### *Ni ez naiz xomorroa*

Zubizarreta, I. (2011). *Sasi Guztien Gaietik*. Galtzagorri elkarte.

Ni ez naiz xomorroa  
Izanagatik lau begi.  
Zatoz, zatoz nirekin  
Ez zoazela ihesi.  
Tran la rai lai lai...  
Bat, bi, hiru... kuku!

Korroan jokalaria kantari eta haien erdian, begiak estalita, bulea.  
Kantua bukatzean, bulea jiraraziko da, bat, bi, hiru... beste jokalaria bat harrapatu arte.

### *Behin joan nintzen azokara*

Zubizarreta, I. (2011). *Sasi Guztien Gaietik*. Galtzagorri elkarte.

Behin joan nintzen azokara,  
Erosi nuen txakur bat.  
Txakurrak uau, uau!  
Nik xaxa berari,  
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara  
Erosi nuen txerri bat.  
Txerriak kurrin, kurrin!  
Txistuak fli, fli!  
Txakurrak uau, uau!  
Nik xaxa berari,  
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,  
Erosi nuen txistu bat.  
Txistuak fli, fli!  
Txakurrak uau, uau  
Nik xaxa berari,  
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara  
Erosi nuen katu bat.  
Katuak miau, miau!  
Txerriak kurrin, kurrin!  
Txistuak fli, fli!  
Txakurrak uau, uau!  
Nik xaxa berari  
Eraman nion amari.

...

Autoan batetik bestera bidaiatzen ari garela kantatzeko aproposa. Animalien zerrenda nahi adina luza daiteke, ahapaldi bakoitzean, ordena zorrotza gordez erantsiko duguna... atzera, aurrera, ezetz nahastu gabe esan!

## Urrezko izara

Zubizarreta, I. (2011). *Sasi Guztien Gaietik*. Galtzagorri elkarte.

Ataunen senar emazte batzuek, gauero-gauero, bilera bat egiten omen zuten, denbora pasa. Emaztea gerriko minez gaixo zegoela ere, hor bilduko ziren lagun guztiak etxe hartan, behe-suaren ondoan.

Lagunekin batera, jentil batzuek ere etortzeko ohitura hartu zuten. Jentilak beren altxor guztiak mendiko ezkutalekuetan utzita, etxe hartan egoten ziren gustura, berriketan eta kantuan gauerdiraino.

Sartu eta berehala urrezko izara bat zabaltzen zuten, eta haren gainean eserita egoten ziren denbora guztian, kantuekin eta hitz aspertuekin gozaten. Baina gauerdiko hamabietan, oilarrak kukurruku jotzen zuenean, izara hartu eta hitzik esan gabe, alde egiten zuten etxe hartatik jentilek.

Etxeko jaunak inbidiaz begiratzen zion urrezko izarari, beretzat nahi zuen eta ez bat eta ez bi, erabaki zuen izara ostea. Gau batean, etxera sartu ondoren, izara zabaldu zuten jentilek, beti bezala. Baina haien ezkutuan, nagusiak iltzez josi zuen izara ohe- adarretan. Gau-bela osoan, josita egon omen zen izara, beste inor konturatu gabe.

Oilarrak bere orduan, kukurruku jo zuen eta jentilak izara hartu ezinik, tira eta tira aritu ondoren, joan ziren, haserre gorrian.

Egun mordoxka bat igaro zen jentilak etorri gabe. Baina halako batean, agertu ziren etxe hartan berriz, opari harrigarri bat esku artean. Kordoi eder bat zen, etxeko andreaki gerrian lotu eta haren gerriko minak sendatuko zituela esan omen zioten etxeko jaunari. Gau-belan, beti bezala egon ziren denak; kontu kontari eta kantuan.

Baina gaueko hamabietan jentilak aienatu zirenean, bere susmo txarrak erakutsi zituen gizonak. Jentilen kordioa hartu eta emazteari ez, eta etxe ondoko intxaur arbolari lotu zion. Berehala intxaur-zuhaitza kordio eta guzti ezkutatu ziren, inork ez daki nora. Geroztik jentilak ez ziren berriz ere agertu etxe hartara.

Entzun eta zuen hitzekin kontatzeko.

Oraindik ipuinetan agertzen zaigu gizarte paganoaren arrastoak. Lehen-lehen beste moduko pertsona batzuk bizi ziren, desberdinak, boteretsuak, isilak, altxor handiak gordetzen zituzten bizi ziren leize-zuloetan...